

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Osteguna, 2013ko otsailaren 21a. IX. urtea. 2.549. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



'Gabriel Aresti biszitan' ikuskizuna estreinatuko du, bihar, Zeberioak. ITZEA URKIZU

Xabier Zeberio Musikaria

«Ziurrenik azken urteotako emanaldirik bereziarena izango da»

Xabier Zeberio tolosarrak, Kilometroak 2013 ekitaldien barruan, Oskorri taldearekin ikuskizun berria estreinatuko du bihar Leidorren 02

Ekitaldi sorta Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoaren 37. urteurrenean

Tolosaldea Sahararekin elkartek deituta, elkarretaratzea egingo dute hilaren 27an, Tolosako udaletxearen kanpoaldean 07

Igor Arostegi Perkusio jotzailea

«Afizioa nire ofizioa egin nahi dut, eta horrek ematen dit jarraitzeko indarra»

Igor Arostegi tolosar gazteak perkusioko goi mailako ikasketak amaitzear ditu 06



Igor Arostegi Musikenen ari da ikasketak egiten. JULEN TELLERIA

Negoio ideia berriak bultzatzeko tailerra antolatu dute

'Garai nahasietan ekin zure egitasmoari' lelopean jarri du martxan ekintzailetasun tailerra Tolosaldea Garatzenek; izena emateko aukera zabalik dago 03

Mendiko lasterkarien bilgune izango da Ibarra larunbatean

Euskal mendi lasterketen inguruko informazioa jorratzen duen 'euskaltrail.com' atariak antolatu du ekimena estreinakoz 03

Itzea Urkizu

Hamasei urte daramatza, Xabier Zeberio tolosarrak (1978), Oskorri bion bion josten. Kasualitatez hasi zela dio, taldeko orduko bion josten josten jarduna utzi zuen urte berean amaitu baitzituen, berak, bion josten josten, proba baten bidez sartu zen, beraz, musika taldean.

Itxaropena honetan, emanaldi berezia izango da beretzat biharkoa: *Gabriel Aresti biszitan* ikuskizunaren estreinaldia eskainiko dute Oskorriko kideek, 20:00etan, Tolosako Leidor aretoan.

Estraineko emanaldiak desberdinak izaten al dira?

Bai. Biharkoa berezia da, lehenengo delako, eta errepertorioa bera ere berezia delako. Oskorriren hasiera-hasierako garaiko kantuak dira eskainiko ditugunak, eta beraz, aspaldian jo gabeko doinuak berreskuratu ditugu. Honez gain, kasu honetan Tolosan izango da estreinaldia, eta hemen jotzea, niretzat, berezia da. Taldearentzat oso kontzertu desberdina izango da, bostok elkarrekin lehenengo aldiz joko baitugu formatu akustikoan. Dena da berria, beraz, eta azken urteotako emanaldirik bereziena izango da ziurrenik.

Nondik sortu zitzaizuen proiektu honen ideia?

Arestiren inguruan zerbait egitearen ideia aspaldi generabilen buruan. Gabriel Aresti lankide eta gidari literarioa izan zen Oskorriren hastapenetan, eta Natxo de Felipek-eta oso harreman berezia izan zuten poetarekin. Taldeak lehen diskoa argitaratu, eta geroztik ez dugu lan gehiago egin izan Arestiren obrarekin. Baina ia inoiz jo ez dugun errepertorio oso interesgarri bat bada hor. Horrela, inflexio puntu batera iritsi ginen, eta egitasmo honi ekiteko unea zela iruditu zitzaigun. Ikuskizuna Leidorren estreinatzeak aukera sortu zitzaigun. Kilometroak 2013ren eskutik, eta martxan jarri genuen guztia.

Azken hilabeteotan lana gogotik egin duzue.

Bai, zortzi bat hilabete eman ditugu egitasmoa prestatzen. Aipatu dudanean errepertorio horretatik kantak aukeratzeko hasi ginen lehenengo, egokienak zein izan zitezkeen ikusiz; aukeraturiko doi-



ITZEA URKIZU

Xabier Zeberio Oskorriko kidea

Gabriel Aresti gogora ekarri nahi izan du, Oskorrik, bere azken ikuskizunean. Xabier Zeberio tolosarrarentzat berezia izango da, gaur iluntzean Leidor aretoan eskainiko duten estraineko emanaldia.

«Gabriel Aresti lankide eta gidari literarioa izan zen Oskorriren hastapenetan»

nuei, berriz, moldaketak egiten hasi ginen, era berean. Buru-belarri aritu gara, eta oraintxe puntu-puntupean dago taldea, egindako lana plazaratzeko.

Oskorriren hastapenetako soinu hori zure bakarkako lanketan?

Niretzat oso aberasgarria izan da prozesua, nabardurak-eta askoz ere gehiago azaleratzen direlako. Formatu akustikoan, musikari moduan adierazteko aukera eta espazio gehiago izaten da.

Nahiago dituzu, beraz, formatu txiki-kiko emanaldiak.

Egia esan, ni beti izan naiz formatu txikiagoen aldekoa; musikari gisa gehiago asetzen da bat. Eta erantzukizuna ere handiagoa den arren, neurri berekoa da ondo-

rengo gozamenak. Gainera oso esperientzia polita izaten ari da taldea horrelako formatu batean entzutea, eta entseguak egitea; asko gozatzen ari gara.

Ikusleen gertutasuna ere nabarmendu duzue.

Bai. Esan beharra dago, gauza guztiek dutela beren alde ona. Makro kontzertu batean, talde oso indartsu batekin, eta sekulako ekipoarekin jotzea ere, oso interesgarria da. Baina biharko emanaldiaren kasuan lortzen den gertutasuna, eta kontzertuaren sinpletasun eta fintasun hori, gehiago jasotzen du publikoak. Nabardura txikienetan irabazten du formatu txikiak, agian, eta ikus-entzulearentzat askoz ere zuzenagoa da. Kantuak ere, gainera, oso sakonak izango dira, bai melodien eta bai hitzen aldetik ere. **Abestien moldaketak egokitzeko maketa bat grabatu duzue, estudio-**

an. Prozedura hau ohikoa da Oskorrirentzat?

Proiektu berriak egin izan ditugunean, normalean, disko bat egon izan da tartean. Kasu honetan, ordea, proiektua oraindik diskorik gabe moldatu dugu; zuzeneko egitasmo gisa planteatu izan dugu, hasieratik, *Gabriel Aresti biszitan*. Disko bat prestatzen ari garenean, beti egiten ditugu maketak, noski, entzuteko eta moldatzeko. Kasu honetan, beraz, gauza bera egin dugu, oraingoz behintzat diskorik argitaratu ez dugun arren. Horrela, gutxi gorabehera moldaketa guztiak finkatuta genituela, bi egunez estudioan sartu ginen, guztia ondo grabatzeko.

Ikuskizunerako zukua atera omen diozue maketa horri.

Bai. Gehienbat, norbera jotzen ari denean, ez daukalako kanpotik entzunda izan daitekeen per-

pektiba hori. Kantu batek nola funtzionatzen duen benetan ikusteko oso baliagarria da, eta sorpresa handiak izaten dira: behar bada abesti bat arrunt antzekoa iruditzen zaizu jotzen ari zarenean, eta gero maketan entzunda sekulakoa da, eta alderantziz ere gertatzen da. Egia esan oso ondo



Formatu akustikoan, musikari moduan aukera eta espazio gehiago izaten da adierazteko»

etorri zaigu maketa, hainbat ondoriotara iritsi gara, eta gauza asko hobetu ditugu grabaketari esker. Finean, honek guztiak estudioan sartzeko gogo pizten du, eta zuzenekoak proba bat ere izaten da.

Ikuskizunak Gabriel Aresti belaualdi gazteenei ezagutarazteko balioko duela azaldu zuen Natxo de Felipek. Adinguztietako ikusleak al dituzue?

Nik baietz uste dut. Oskorrik berrogei urtetik gora ditu jada, eta alde batetik, hasierako Oskorri hura ezagutu zuen publikoa dugu, adinean aurrera doana. Bere ibilbidean, ordea, taldeak hainbat egitasmo burutu ditu: disko propioak, herri kantuak berreskuratu eta abesteko *The Pub Ibiltaria*, nahiz haurrentzako errepertorioarekin hiru disko. Azken disko hauen entzule izan zirenak, gaur egun ez dira hain gazteak; 1993koa da *Kantuen testamentue*, pentsa! Beraz, esan daiteke birsortuz joan dela Oskorriren publikoa, eta emanaldietan gazteak nahiz helduak ikusten dira. Oskorri ez da sekula izan, agian, boladan, punta-puntan, egon den taldea, baina beti hor egon izan da, eta horrek bere alde onak baditu.

Kilometroak 2013 izan da biharko kontzertuaren antolatzaileetako bat. Hain zuzen, ekoizle musikala izan zara zu, Kilometroetako abestian. Nola izan da esperientzia?

Esperientzia sekulakoa izan da; benetan aberasgarria eta polita izan da, jende gaztearekin elkarlanean aritzea. Horrelako lan bat nire gain hartzea ardura handia izan da niretzat, baina ohore handia ere bai. Izan ere, egindako lanarekin eta lortutako emaitzarekin oso-oso gustura gaude bai ni eta baita parte hartu duten guztiak ere: egileak, musikariak nahiz inguruko jende guztia.

Kantua inauterietan plazaratu zenuen, eta jada bere arrastoa utzi duela dirudi.

Bai, nik asko entzun dut inauterietan, eta denetarik egongo da, baina oro har, jendeari gustatu zaiola dirudi. Jendeak bere egin du kantua, eta abestu egiten du tabernetan. Egia esan, hori ikusleak poza ematen du, eta lan polita egin dugula uste dut.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

↓ Iragarki laburrak**LAN ESKARIAK**

Etxeko lanetarako. Etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko, emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Autoa badauka. 943 696882 / 606 521992

ESKUALDATZEAK

Taxi zerbitzua Zizurkilen. Zizurkilen, taxi lizentzia eta autoa eskualdatu nahi ditut. Interesa duen edonork, dei dezala 608 57 59 00 telefono zenbakira.

Mendi lasterkari onenak sarituko dituzte Ibarra, Euskaltrail egunean

Estreinakoz antolatu duten ekimena etzi izango da, 'euskaltrail.com' atariaren eskutik

Iñigo Terradillos Ibarra

Euskaltrail eguna izango da larunbatean, hilaren 23an, Ibarra. Euskal mendi lasterketen inguruko informazioa jorratzen duen *euskaltrail.com* atariak antolatu duen ekimena da, Ibarako Udaren laguntzarekin, eta kirol honen zaleak elkartze du helburu moduan.

Hainbat osagai izango ditu estreinakoz antolatuko den Euskaltrail egunak, hala nola, korrikaldi entrenamendua, bazkaria, euskal korrikalari onenei sari banaketa eta mahai ingurua. Entrenamenduari dagokionez, Ibaratik irtengo dira, eta Leaburu aldera joko dute, berriro ere Ibarra bukatzeko. Bi taldetan banatuta egingo dute, eta parte hartzaileen ezaugarrien arabera izango da bakoitzaren erritmoa.

Bazkaria, bestalde, Izaskun auzoan izango da, eta bertan, Eus-



Iker Karrera amezketarrak hartuko du parte I. Euskaltrail egunean. HITZA

kal Herriko lasterkari onenak izendatu eta sarituko dituzte. Halaber, materialen zozketa egingo dute, eta baita mendi lasterketen inguruko mahai ingurua ere. Azken honetan, Iker Karrera amezketarrak parte hartuko du, eta berekin batera, Oihana Kortazar, Zigor Iturrieta eta Aitor Lopez Rekarte ere izango dira. Lau kirolari

hauek gain, Euskal Selektzio ki-deak ere espero dituzte Ibarra, larunbatean, I. Euskaltrail egunean.

Unai Ugartemendia, Ion Ubide eta Joseba Usabiaga tolosarrak dira *euskaltrail.com* webgunearen arduradunak pasa den urteko irailaz geroztik. Ugartemendiak adierazitakoaren arabera, «aur-

↓ Egitaraua

OTSAILAK 23, LARUNBATA

- **10:30.** Ibarako Belabietako kiroldegian hitzordua.
- **11:00.** Korrikaldi entrenamenduaren irteera.
- **13:00-13:15.** Korrikaldiaren bukaera, Belabietako kiroldegian.
- **14:15.** Bazkaria, Izaskungo jatetxean.
- **16:00.** Euskal korrikalari onenei eta aipamen bereziei sari banaketa.
- **16:15.** Materialen zozketa: Medilast, Salomon, OS20...
- **16:30.** Mahai ingurua, Izaskungo jatetxean, Iker Karrera, Oihana Kortazar, Zigor Iturrieta eta Aitor Lopez Rekarte laster-kariekin.

ten lehenengo aldia izango da, eta aurrera begira, Euskal Herriko lasterkarientzat egun hau erreferente izatea eta urtero antolatzen jarraitzea da helburua». Bestalde, 80 lagun inguru espero dituztela larunbatean azaldu du, Euskal Herriko nahiz kanpoko parte hartzaileak izango direlarik.

oibarraldea@hitza.info

Pintxo potea egingo dute bigarrenkoz, Berastegiko tabernetan

Bihar izango da 19:00etatik aurrera, eta 21:30ean derbia ikusteko aukera izango da

I. Terradillos Berastegi

Pintxo potea antolatu dute Berastegin biharko bigarrenkoz. Jan edanarekin batera, gainera, Athletic eta Realaren arteko partida ikusteko aukera ere izango dute.

Otsailaren leian egin zuten pintxo potea berastegiarrek, eta izan zuen «arrakasta» ikusita berriro ere antolatzea erabaki dute, «herriko giroa alaitu asmoz». 19:00etatik aurrera pintxo gozoak dastatzeko aukera izango du gerturatzeko den edonork, edariarekin lagundurik. Kako jatetxe tabernan, Zelai tabernan eta Urepele elkartean 1,5 euroren truke. Bestalde, 21:30etik aurrera, bi euskal taldeen arteko derbia ikusi ahal izango da aipaturiko bi tabernetan eta baita Urepele elkartean ere.

Elkarretaratzea gaur Leitzan, hezkuntzako murrizketen aurka egiteko

Erleta eskolaren kanpoaldean egingo dute, 16:30ean, 'Ostegun beltzak' lelopean, guraso eta irakasleek deituta

I. Terradillos Berastegi

Erleta eskolako Denok Bat guraso elkarateak eta irakasle asanbladak deituta, elkarretaratzea egingo dute gaur, 16:30ean eskolaren kanpoaldean, hezkuntza sailean eman diren murrizketen aurka egiteko.

Ostegun beltzak lelopean, beltzez jantzita irtengo dira kalera, beharrei erantzuten diren hezkuntza aldarrikatuz. Murrizketen eraginez, gela bakoitzean ikasle gehiago sartu dituztela, ordezkapenak egitean kontratu baldintzak kaskartu dituztela, behar bereziak dituzten haurrak laguntzarik gabe geratu direla edota funtzionamendurako diru sarre-gutxiago dutela salatu dute.

Ekintzailetasunari buruzko tailerra egingo dute hilaren 26 eta 27an

Lau orduko bi saio egingo dituzte Tolosako Musika eskolan; izena emateko azken eguna hilaren 25a izango da

I. Terradillos Tolosa

Garai nahasietan ekin zure egitasmoari lelopean ekintzailetasuna eta negozio ideia berriak bultzatzeko tailerra antolatu du Tolosaldea Garatzenek. Otsailaren 26 eta 27an izango da, Tolosako Musika Eskolan, eta lidergo ekintzailetasunean, talentu gazte onenen artean izendatutako Manahma aholkularitza etxeko Maialen Oregi izango da arduraduna.

Lau orduko bi saio emango dituzte, 09:00etatik 13:00etara ordu egun, eta parte hartu nahi dutenek otsailaren 25a izango dute izena emateko azken eguna. Horretarako eta informazioa eskuratzeko, Tolosaldea Garatzeneko ekintzailetza sailarekin jarri behar da harremanetan, *zubeldia@tolosaldea.net* helbidean edota 943 654501 zenbakian.



Lanbide Heziketa Institutuan egindako ekintzailetasun tailerra. HITZA

Lan metodologia praktikoa eta esperientzietan oinarriturikoa izango da, teoria kapsula txikiez osatua, eta parte hartzaileei materiala eta bibliografia desberdina banatuko zaie. Tailerraren helburu orokorra ekintzailetasun izpiritua sustatzea izango da, bai langabetuen artean, baita orain arte autoenplegua lan munduratzeko aukera bezala ikusi ez dutenen edota ideia bat izan arren beraiekin egitasmoari ekiteko bidean gertatu diren guzti horien artean ere.

Era berean, parte hartzaile eta ekintzaileei sormen espazio bat erraztu nahi zaie, Tolosaldean ekintzailetasunari buruzko hausnarketa bat egin eta negozio ideia

berriak sortzeko espazioak landuz.

Ekimen honekin, ekintzailetasuna lan munduan txertatzeko beste kontura lan egitea bezain aukera interesgarri eta aberasgarria dela ikusarazi nahi dute antolatzaileek, parte hartzaileengan. Gainera, parte hartzaileen ekintzaile gaitasunak mahai gaineratu eta indar horiek negozio ideia batera bideratu daitezkeela ikusiko dute.

Era berean, Tolosaldeko errealitatea aztertuz negozio ideia berriak sortu ahaliko dituzte, eta etorkizuneko ideia arrakastatsuak zein izan daitezkeen atzemango dute.

Astelehenetan irekiko dute Ibarako KZgunea aurrerantzean

I. Terradillos Ibarra

Otsailaz geroztik, Ibarako KZgunean irekiera eguna aldatu egin dute, eta aurrerantzean astelehenetan izango da. Ohi bezala, hila-bete batean goizez irekiko da, 09:00etatik 13:00etara, eta hurrengo arratsalde, 16:00etatik 20:00etara.

Horrez gain, ikastaro eskaintza ere berritu egin dutela adierazi dute KZgunetik. Ikastaroak modurik dituzte orain multzokatu-ta, oinarritzko internet, sare sozialak, irudia eta soinua, eta abar. Ikastaroez gain, Herriar Txartela egin eta Metaposta zerbitzuan izena emateko aukera ere izango da, eta herriko elkaratek, webgune bat egiteko aukera izango dute KZgunearen laguntzarekin.

Informazio gehiago nahi duenak Ibarako KZgunera gertura daiteke, 943 023 653 telefono zenbakira deitu, edo *tutor.ibarra@kzgunea.net* helbide elektronikora idatzi dezake.



Blues Jaialdiaren aurkezpenean egon ziren Aurrera, Atxulondo eta Pesus tabernetako ordezkariak, atzo. A. IMAZ

Maila handiko artistak etorriko dira etzi Zizurkilera, XI. Blues Jaialdira

Joan Pau Cumellas eta Miguel Talaverak eskainiko dute gaudiko lehen kontzertua

Asier Imaz Zizurkil

Zizurkilgo Udalak, Aurrera, Atxulondo eta Pesus tabernen laguntzarekin XI. Blues Jaialdia antolatu du. Ekimenaren barruan hiru kontzertu ikusteko aukera egongo da larunbatean Zizurkilen. Kriariaren eragina izan

arren, aurrekontua erdira jaitzi dute, maila handiko artistak joango dira Aurrera, Atxulondo eta Pesus tabernetako kontzertuetara. Horien artean, Joan Pau Cumellas armonika jotzailea aipatu behar da. Kataluniarrak Miguel Talaverarekin osatuko du bikotea, eta blues, country eta jazz doinuak eskainiko dituzte. Euskal Herriko ordezkaria The Romantics taldea izango da. Musika afro amerikarra jorratzen dute, eta 2009an sortu zen talde honetan Iker Piris tolosarrak jotzen du.

Antolatzaileek eskualdeko herritar guztiak gonbidatu dituzte

↓ Egitaraua

OTSAILAK 23, LARUNBATA

- 23:00. Atxulondo tabernan, Joan Pau Cumellas & Miguel Talavera.
- 00:15. Pesus tabernan, The Romantics.
- 01:30. Aurrera tabernan, Gaby Jogeix Blues Band.

gauldira, «horrelako musikiariak ikusteko aukera paregabea egongo baita larunbatean Zizurkilen».

Autokonpostaje saio berri bat egingo dute Zizurkilen

Lehen ikastaroaren arrakasta ikusirik bigarren bat antolatzea erabaki du Zizurkilgo Udalak

tu direla azaldu du. Autokonpostaje ikastaroan 30 familia baino gehiagok parte hartu zuten, hala eta guztiz ere, eskari gehiago egon zirela azaldu dute udaletik. Hori dela eta, beste ikastaro bat antolatuko dute konposta nola egin erakusteko.

Ikastaroan parte hartu ahal izateko izen ematea udaletxean, 943 69 10 12 telefonoan, edo birziklatuz@zizurkil.com helbidean egin beharko da. Zizurkilgo Udaletik herritar guztiak gonbidatu dituzte ekimen honetan parte hartzera.

Erredakzioa Zizurkil

Zizurkilen autokonpostaje ikastaroa egin zuten iragan ostegunean, Iriarte Kultur Etxean. Udalak ikastaroaren inguruko balorazio oso positiboa egin du, eta hasiera-ko aurreikuspenak erabat gaindi-



Zizurkilen autokonpostaje ikastaroa egin zuten ostegunean. HITZA

Halterofilia txapelketa jokatu da Villabonako Olaederran, etzi

A. Imaz

Larunbat honetan, otsailak 23, Villabonako Olaederra Kiroldegian, 16:30etik aurrera, Euskadiko Ligako halterofilia jardunaldiak jokatu dira. Kadete mailan, otsailaren 9an jokatu ziren Basaurin. Danok taldea bigarren postuan sailkatu zen. Eskualde-

ko taldeak pultsulari bat gutxigorekin parte hartu zuela aipatu behar da. Banakako sailkapenean Lyam Rodriguez 2. postuan gelditu zen; Susana Davila hiru garren eta Goretti Amonarriz bosgarren. Teknika aldetik, Jokin Aranburuk 1. postuan amaitu zuen. Davilak bere marka 10 kilotan hobetu zuen, eta Espainiako

Junior eta Absoluto txapelketa-rako gutxieneko marka lortu zuen. Bestetik, hilaren 16an, Gasteizen Euskadiko Teknika Txapelketa jokatu zen. Besteak beste, benjaminetan Gorka Aranburuk garaipena lortu zuen. Gauza bera egin zuten Xabier Amonarrizek eta Jokin Aranburuk, benjamin eta infantil mailan.



Eskualdeko pultsulari gaztetxoaren taldeko argazkia. HITZA

• Saria:
Elketa jatetxean
bi lagunentzako
otordua

Elketa Jatetxea

San Miguel bailara, 2
Hernialde 943 65 21 16
www.elketa.com

• Argazkiak nora eta noiz bidali:
thargazkiak@hitza.info helbidera martxoaren 3a bitarte
Argazkiek gutxienez 20 zentimetrokoak eta 300 ppp-ko bereizmena izan behar dute.



Inauterietako
Argazki lehiaketa

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO hitza

inauteriak '13

Parte hartuko duten argazki guztiak ikusgai izango dira
Inauterietan tolosaldea.hitza.info webgunean!

Irudia

«'EGUNKARIA'-REN ZAURIARI ODOLA DARIO»

Egunkaria itxi zutela hamar urte bete ziren atzo eta ekitaldia egin zuten Andoaingo Martin Ugalde kultur parkean. Bertan izan ziren *Egunkaria* auziko auzipetuak, tartean Martxelo Otamendi tolosarra, langile ohiak, baita hainbat arlotako eragile eta ordezkariak ere. Ekitaldian Joan Mari Torrealdaik hartu zuen hitza. Euskarari normalizazio tresna «paregabea» kendu, eta gainera gizartea

«pobretu» zutela esan zuen, euskarazko komunikabide baten faltan utzita. «Noizko erreparazioa?», galdetu zuen Torrealdaik. Auzi ekonomikoa zabalik dagoela gogorarazi zuen; bertan dago auzipetua Alegian bizi den Begoña Zubelzu. «Auzi ekonomikoa absoluzioarekin itxi arte Egunkaria-ren zauriari odola dario» esanez amaitu zuen hitzaldia Torrealdaik. JON ORDOÑEZ/BERRIA.INFO

Irudia Tolosa

NEGUKO ZOZKETA EGINDA

Bizi biziki enpresak Tolosako Aralar Kirolakekin batera zozketa bat egin berri du. Sarituak Hernaniko Alberto eta Ibarako Natalia izan dira. Arango bailaran bi pertsonentzako egonaldia, iraunpen eskiko ikastaroarekin batera eskuratu dute. Udaberrian eginiko zozketaren harrera ona ikusita, neguan beste zozketa hau egitea erabaki zuten bezeroen artean. HITZA

→ Laburrak

Odola emateko aukera izango da, bihar

ALEGIA ▶ Alegiako Osasun zentroan odola emateko aukera izango da, bihar, hilak 22, ostirala. Erizainak 19:00etatik aurrera egongo dira prest, eta odola eman nahi duen edonork bertara joateko aukera izango du.

Korrikaren aldeko festa antolatze bilerak, gaur

ANOETA ▶ Martxoaren 2an, larunbatean, korrika kulturala dela eta, egun guztiko egitaraua antolatu nahi dute, Anoetan. Egun hori behar bezala antolatze bilerak, gaur, hilak 21, korrika batzordearen bilera egingo dute. 18.30ean elkartuko dira udaletxeko pleno aretoan. Herritar eta herriko eragile guztiak animatu nahi dituzte bertan parte hartzera.

Espainiako bandera jartzearen aldeko idatzia

IBARRA ▶ Ibarako kaleetako atari guztietan Espainiako bandera jartzearen aldeko idatzia agertu zen atzo goizeko lehen orduetan. Bertan, ikurrina kentzeko eskatzen da, eta espainiar ikurren aldeko aldarria egingo da idatzian. Zeresana sortu du herritarren artean, kalean edota sare sozialetan ere. Atzo bertan kendu zituzten idatzi guztiak atarietatik.

Irurako kultura eta festa batzordearen bilera

IRURA ▶ Hilaren 25ean, astelehenean, 19:00etan udaletxeko batzar aretoan Irurako kultura eta festa batzordeak bilera egingo du. 2013ko aurrekontua jorratuko dute, eta Kirol asteko, Kultura asteko edo maiatza kulturalako eta San Migel Jailetako datak finkatzeko izango da. Batzordetik herritar guztiak bilera honetan parte hartzeko deia luzatzen diete.



harpidedun izateak badu saria zozketa

1 Zabala Sagardotegia Bi lagunentzako bina bazkari edo afari

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**

Garagartza baserria
Aduna
Tel.: 943 69 0774
www.rzabala.com



2 Sarasola Sagardotegia Bi lagunentzako bazkari edo afaria

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **52**

Asteasu
Tel.: 943 69 02 83



3 Donostiako Aquariuma Bi lagunentzako bina sarrera

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **53**

www.aquariumss.com



Parte hartzeko deitu edo idatzi: **902-82 02 40** edo sartu **hitza.info** helbidean ZOZKETA atalean. Aste honetako astearte, asteazken eta ostegun goizean, nahi duzun orduan, Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.

harpidedun
TXOKOA hitza



JULEN TELLERIA

Igor Arostegi • Perkusio jotzailea

Euskadiko, Bilboko eta Nafarroako Orkestra Sinfonikoekin aritu izan den arren, oraindik goi mailako ikasketak amaitzen ari da Musikenen. Ez dira asko hain gazterik horren urrun heltzea lortu dutenak. Hala ere, apaltasunez darama bere lorpena.

«Lagun eta leku asko ezagutu ditut perkusioari esker»

Julen Telleria Tolosa

Tolosako Musika Eskolako paretak ondo baino hobeto ezagutzen ditu Igor Arostegi (Tolosa, 1990). Musikari familia batetik eratorria, zortzi urterekin erosi zituen bere lehenengo makilak, eta orduztik makina bat pare txikitu du, joaren joaz. Musikenen goi mailako perkusio ikasketak bukatzeko hilabete batzuk bakarrik geratzen zaizkio, eta horretan dihardu buru belarri, entsegu batetik bestera. Ez dira asko adin horrekin titulu hori eskuratu dutenak. Gaztea, baina esperientziatzat beteriko mutila da.

Musikaria jaio, ala egin egiten da?

Zalantzarik gabe, jaiotzeak asko laguntzen du. Baina, dohain horiek behar bezala lantzen ez badira, jai dago. Ezagutzen dut jendea ni baino gaitasun handiagoarekin, baina behar adina lan ez egiteagatik bidean geratu dena. Musikaria izateko, egin, asko egin behar da.

Zatozen familiatik etorrita, jakina zen zu ere musikan hasiko zinela?

Familian asko ziren instrumenturen bat jotzen zutenak, baina haiek bezala, ni ere dibertsio hutsaz hasi nintzen. Futbolean jokatzaren moduan aritzen nintzen musikan ere. Aurrera egin

ahalala ikusi nuen geroz eta gustokoago nuela, eta bide horri segi diot.

Perkusioarekin, baina, familiako lehenbizikoa izan zinen. Nolatan aukeratu zenuen?

Etxean beti esan izan didate txikitatik eduki dudala perkusioarekiko fijazioa. Umetatik ibili izan naiz bateria gora eta bateria beheara. Horregatik, gustatzen zitzaidalako aukeratu nuen, beste inoren eraginik gabe.

Hasi zinenean, pentsatzen al zenuen horren urriti iritsiko zinenik?

Inolaz ere ez. Iruditzen zait, gainera, sekula ez dagoela hori jakiterik. Hasi nintzenean afizio bat besterik ez zen, ondo pasatzeko eta disfrutatzeko. Gerora hartu nuen serioago. Eta orain ere disfrutatzen dut, nahiz eta tarteka sufritzea ere tokatzen zaigun.

Zein aukera eman dizkizu perkusioari?

Batez ere, talde desberdinekin jotzeko aukera eman dit. Perkusioari esker, txaranga, bandan, orkestran, perkusio taldeetan eta bestelako formatuetan jotzeko aukera izan dut, eta, noski, horrela jende asko ezagutu dut. Gainera, Euskal Herriko txoko guztietan barrena ibili naiz, eta baita Euskal Herriko kanpo ere. Lagun

eta leku asko ezagutu ditut perkusioari esker.

Nolatan hartu zenuen musikara dedikatze erabakia?

Erreterian erdi mailako ikasketak bukatu ondoren, musika ez beste zerbaitean hastea pentsatzen nuen. Baina Jesus Mari Garmendia irakasleak, betidanik ikusi nahi izan ninduen goi mailan, eta hark animatuta, eta nire burua konbentzita, horretan hasi nintzen. Jarritako helburuak betetzen joan ahala, orduan eta indar gehiago izan dut aurrera egiteko.

Zein bide egin behar izan duzu zauden lekura heltzeko?

Tolosako musika eskolan perkusioa ikasten zortzi urtez aritu, eta Erreterian kontsebatoriora joan nintzen erdi mailako ikasketak egitera. Irakaslearen laguntzarekin, eta lana majo eginda, hiru urtetan bukatu nituen. Ondoren, goi mailakoa egin asmatan, leku desberdinak begiratzen aritu nintzen, baina zorteari eta esfortuari esker, Donostiako Musikenen hartu ninduten. Orain, ametsa egi bihurtzen ari naiz.

Gustuko lekuan ez omen da aldaparik izaten. Neketsua ari zaizu egiten?

Mundu hau asko gustatu behar zaizu norabait iritsi nahi baduzu,

oso gogorra baita. Momentu batzuetan, dena pikutara bidaltzeko gogoia ematen dit, asko estutzen gaituztelako. Zorionez, badaikit afizio honetatik egin nahi dudala nire ofizioa, eta horrek ematen dit jarraitzeko indarra.

2008an Euskadiko Gazte Orkestratik deitu zizuten. Nolakoa izan zen esperientzia?

Lau urtez aritu naiz bertan, eta esperientzia erabat aberasgarria



Hasi nintzenean afizio bat besterik ez zen, ondo pasatzeko eta disfrutatzeko»

«Afizio honetatik egin nahi dut nire ofizioa, eta horrek ematen dit jarraitzeko indarra»

izan da. EGO-koak izan ziren orkestra batean eman nituen lehenengo urratsak. Irakasle berriak, ikuspuntu berriak, eta, batez ere, inoiz bizi gabeko sententzioak eskaini zizkidan. Gainera, lagun eta bidaia asko egin ditut horri esker.

Ondoren, Espainiako Gazte Orkestra Nazionalean hasi zinen.

Iaz, sarbide frogia egiteko aukera eman, eta lehenengoan sartu nintzen. Estatu osoko musikariak aritzen dira bertan, eta ez da bate-re erraza izaten haraino iristea. Maila ikaragarria da, puntako musikariak eta irakasleak baitaude; jende profesionala. Horien artean egotea, ohorea da niretzat.

Zein da zure eguneroko martxa?

Tamalez, ez daukat martxa finkorik. Irakasle asko atzerritik etortzen dira, eta haien egutegira moldatu behar izaten dugu. Gai-nontzean, egunero joaten naiz Donostiara, klaseak hartzera edota horiek prestatzera. Goizean goiz hasten naiz, baina ez dut jakiten iluntzean noiz amaituko dudan. Bandarekin eta txarangeekin ere entseatzan dut, astean hirutan, baina, Musikene amaitu bitartean, ikastea eta ikastea, ez zait besterik geratzen.

Horrenbeste sakrifizio egin behar izanda, inoiz ez zara damutu?

Damutu ez, gustokoa dudalako eta honetan aritu nahi dudalako. Baina inguruko jendea horren lasai ikusten dudanean, batzuetan inbidia ematen dit. Askok klasera joatearekin nahikoa izaten dute, baina nik klase bat hartu ahal izateko lehenbizi ondo prestatu behar izaten dut, klase bakoitza ebaluazio bat izaten baita.

Ikasketak bukatu ondoren, nola ikusten duzu zure etorkizuna?

Hori inkgonita bat da. Nik perkusioa jotzen bizi nahiko nuke, orkestraren batean edo talderen batean. Azken batean, horixe da nire pasioa, eta horretarako ari naiz ikasten. Baina irakasle izatearen aukera ere hor daukat. Etor-kizuna, etorkizunak esango digu.

• **tolosa@hitza.info**

Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitzak KAZETARIA behar du ordezkapen bat egiteko eskakizunak:

- Kazetaritzan edo Euskal Filologian lizentziatua
- EGA edo baliokidea den euskara maila izatea

kontutan hartuko da:

- Kazetaritza lanetan esperientzia izatea
- Quark X Press programa erabiltzen jakitea
- Gidatzeko baimena eta kotxea izatea

Curriculum-a bidali helbide honetara otsailaren 22a baino lehen
tolosaldean@hitza.info

Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoa aldarrikatu dute

Sortu zela 37 urte bete direnean ekintza sorta antolatu du Tolosaldea Sahararekin elkarteak, sahararrei babesteko

Iñigo Terradillos

Datorren asteazkenean 37 urte beteko dira Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoa sortu zenetik, eta Tolosaldea Sahararekin elkarteak urteurrenarekin bat eginez hainbat ekintza antolatu ditu. Halaber, 24 ekintzaile sahararren aurka egunotan izan den epaiketa militarra gogor salatu dute.

Sahararen aldeko elkarteak gogoratu du euren lurretik urrun ospatuko dutela sahararrek beste behin Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoaren 37. urteurrena, eta modu horretan ospatuko duten azkena izango denaren itxaropenaz, hainbat ekintza antolatu dituzte. Batetik, urteurreneko egunean, hau da, otsailaren 27an eskualdeko udaletxeetako balkoietan saharar bandera jar-



Tolosaldea Sahararekin elkarteak kideek herenegun eskainitako prentsaurrekoaren une bat. I. TERRADILLOS

tzeko eskaera egin dute. Bestetik, egun horretan elkarretaratzea egingo dute, Tolosako udaletxearen aurrean, 19:00etan, eta bertan parte hartzea animatu dituzte saharar herriaren lagun guztiak. Eta, horrez gain, Tolosaldeko udaletan onartua izan dadin mozio bat ere aurkeztu dute.

Epaiketaren gaitzespena

Bestalde, Tolosaldea Sahararekin elkarteak 2010eko urrian Sa-

harako hiriburuarren, Aaiunen kanpoaldean Gdeim Izik kanpalekua altxatu ondoren atxilotu zituzten 24 saharar ekintzailearen aurka eman den epaiketa militarra gaitzetsi du. Protesta bake-tsua helburu zuen kanpalekuak 20.000 lagun baino gehiago bildu zituela gogoratu dute, «sortu eta hilabetera indar okupatzaile marokorarrak txikitzea sartu ziren arte». «Ondorioz, saharar ugari zaurituak izan ziren, ehunka de-

sagartaraziak, jipoituak, torturatuak, bi erailak eta 24 atxilotuak».

Bada, 24 atxilotuei banda kriminal bat sortzea, 14 marokor hiltzea eta gorpuak mutilatzea leporatu diete. Bi saharar aske utzi dituzte, baina gainerakoei, bizi osora bitarteko kartzela zigor luzeak ezarri dizkiete. Epaiketan irregulartasunak izan direla eta ez dela probarik aurkeztu salatu dute elkarteak kideek, epaituei elkartasuna adieraziz.

Bularreko minbizia garaiz detektatzeari buruzko hitzaldia Ibarra

I. Terradillos Ibarra

Katzalin, bularreko eta ginekologiako minbizia duten emakumeen elkarteak eta Ibarra Udalako Gizarte Zerbitzuen Sailak bularreko minbizia garaiz antzemateari buruzko hitzaldia antolatu dute. Hizlaria Katzalin elkarteak kide bat izango da, eta jorratuko diren gaiak ondorengoak izango dira: minbiziaren arrazoiak, tratamenduak, eta prebentzioa. Hitzaldia datorren asteartean, hilaren 26an, 17:00etan izango da, Ibarra kultur etxean.

Bularreko minbizia garaiz antzemateari gero eta garrantzi gehiago ematen zaio, eta honi buruz informatuta egotea funtzeskoa dela azaldu dute.

→ Laburrak

Ohiko batzarra egingo dute bihar, Leitzan

LEITZA ▶ Ohiko batzarra egingo dute bihar, Leitzako Udaleko batzar aretoan, 21:00etan hasita. Parot doktrinari buruzko mozioa, 3Mugak Batera plattformaren mozioa edota 2013ko martxoaren 8ko adierazpen instituzionala eztabaidatuko dituzte, besteak beste.

Entrenamendu mentalari buruzko tailerra, etzi

LEITZA ▶ Urko Arozenak entrenamendu mentalari buruzko saioa emango du etzi, larunbata, Leitzako zinemaren (09:00-13:00 euskaraz eta 15:00-19:00 gaztelaniaz). Meditazio sistema ezbedinen ariketa eraginkorren bilduma da, zoriontasuna bilatzea helburu dutenak.

Marokoren «etengabeko bortxaketa» salatu dute

Sahararen aldeko elkarteak mozioa aurkeztu du, eskualdeko udaletan onartu dezaten

I. Terradillos

Eskualdeko udaletan mozioa aurkeztu du Tolosaldea Sahararekin elkarteak, udal ordezkariari babesa eman diezaioten eskatuz. Mozio horretan, Mendebaldeko Saharako lurralde okupatueta «etengabe gertatzen diren mani-

festazio eskubidearen zanpaketa, atxilotaketak, torturak eta tratatu txarrak, bortxaketak, desagerpenak, deportazioak eta orokorrean, giza eskubideen aurkako erasoen salaketa eta gaitzespen bortitzena» adierazten dute. Era berean, Mendebaldeko Saharako Erreferendumean Nazio Batuen Erakundearen Misioa (MINURSO) giza eskubideen arloko eskuduntzak izan dezan eskatzen dute.

Mendebaldeko Saharako biztanleak, euren askatasunez, egokien deritzoten naziotasunari eta biztanle orori, dagokion mugi-

mentu askatasuna errespetatzea eta Mendebaldeko Saharako biztanleak zatitzen duen 2.600 kilometro luzeko lertsaren harresia eraistea eskatzen dute mozioaren bidez. Era berean, Espainiako diputatu kongresuak ebatzita behingoz betetzea eta gerran aurkitzen diren estatuei, Maroko kasu, armak saltzea debekatzen duen ebazpena betetzea aldarrikatu dute.

Mozioak, halaber, Mendebaldeko Saharako baliabide naturalen lege kanpoko ustiatzeari uko egitea eskatzen du, zehazki, Mendebaldeko Saharako uretan

arrantza egitea baimentzen duen Maroko eta Europar Batasunaren arteko ituna ez berritzea eskatuz. Gainera, Europar Batasuneko gainontzeko estatuekin batera, Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoaren autodeterminazioarako eta independentziarako eskubidea aitortzea eta Mendebaldeko Saharako deskolonizazio prozesua amaitzea exijitzen dute.

Azkenik, mozioak preso politiko saharar guztiak aske uztea eskatzen du, eta bertan behera utzi dezatela 24 ekintzaile sahararren aurkako epaiketa militarra.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Eneritz Maiz
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoetaledea: 687 410 022. anoetaledea@hitza.info
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitzalde: 687 410 118. leitzalde@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak: BERTAKO HEDABIDEAK Galtzaundi euskara taldea eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Inauterietako Argazki Lehiaketa



KORRIKA IRITSI DA LEHEN ARGAZKIA

Martxan da TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK antolatzen duen Inauterietako Argazki Lehiaketa. Pasa berri diren Inauterietako argazkiak bildu nahi ditugu, eta lehena iritsi da: «Lehenengo korrika 1980. Arantzazutik Bilbora. Eta Aita Villasana-

te testigua ematen...», adierazi du Iyuyak. Parte hartzeko martxoaren 3a baino lehen, thargazkiak@hitza.info helbidera bidali behar dira argazkiak. Irabazleak Hernialdeko Elketa jatetxean bi lagunentzako otordua eskuratuko du. IYUYA

Agenda

GAUR

MUSIKA

■ **Tolosa.** Tolosa Kantariko prestakuntzarako entseguak izango da, gaur, 20:00etan, Musikola eskolako aretoan.

DEIALDIAK

■ **Aduna.** Korrika 18ren aldeko bilera egingo dute, gaur, 16:15ean, Txulobi elkartearen Edonork parte hartu dezake.
 ■ **Anoeta.** Martxoaren 2an korrika kulturala dela eta egun osoko egitaraua antolatu nahi dute. Behar bezala antolatzeko, gaur, korrika batzordea egingo dute,

18:30ean udaletxeko pleno aretoan. Herritar eta herriko eragile guztiak animatu nahi dituzte bertan parte hartzera.

■ **Asteasu.** Sagain mendi taldeak Euskal Herriko kosta ezagutzeko irteera antolatu du, igandarako. Pasaiatik Donostiarako bidea egingo dute. Izena emateko azken eguna da gaur, eta kiroldegian eman beharko da bost euroren truke.

■ **Tolosa.** Atsedena aisialdi taldeak irteera antolatu du Hernialdera martxoaren 1etik 3ra. 12 eta 16 urte arteko gazteei zuzendua da, eta izena 646 900 551 telefono zenbakira deituz

eman behar da. Gaur bukatzen da izena emateko epea.

■ **Ibarra.** Kontsumo taldea sortzeko bigarren saioa izango da gaur, 18:30ean, Ibarako kultur etxean. Herritar guztiak gonbidatuta daude parte hartzera.

BERTSOLARITZA

■ **Villabona.** Umorez jardunaldien barruan, Subijana etxean, 18:00etan, Maskulinitatea: eraldatu, irauli edo baztertu gaiaren inguruko azterketa egingo dute Jokin Azpiatzuren eskutik. 19:30ean, Emarock egitasmoa aurkeztuko du Saioa Cabañasek.

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Egunkoia eta gauekoia: Ignacio Olarreaga, Korreo kalea, 2.
 Telefonoa: 943 67 01 28.
 ■ **Leitza.** Plaza, M. T. Elbarren 36.
 Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

GAIURKO ESKAINTZA

Oihalezko fardel garbigarriak

Hazi la Hazi
 Community eliza, 1. Andorra auzoa
 20211 Maiz (G.P.R.2014)
 Tel: 943 61 12 11, 943 61 12 33
 email: gaur@mauka.eu
 www.mauka.eu

50€
 Bakiak gaurko beste

berria

Agurrak



Urte askoan!

Arhane Lertxundi Romo (Amezketan). Etzi 4 urte! Zorionak aitona eta osaben partetik, eta bereziki anaia Ehiarrek.

AGURRAK

943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

●●●●● **agurrak**

Egin HITZAren HARPIDEDUN
 otsailaren 1etik
 martxoaren 31ra arte,
 ETA JASO

EKAIN
sagardoa
6 botilako
kaxa bana

Harpidedun egiten diren guztien artean

Orduñako Aisia hotelean, bi pertsonarentzako asteburu baterako egonaldia ZOKATUKO DUGU

Harremanetarako:
 902 82 02 01
harpidetza@hitza.info

hitza